



# Getxo

*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

## PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

### **Udalerriko parke bat estaltzea izan da proposamen bozkatuena 2022ko aurrekontu parte-hartzaileetan**

“Parke bat estaltzea” proposamenik bozkatuena izan da ekainaren 24an amaitu zen 2022ko aurrekontu parte-hartzaileen proiektuak lehenesteko fasean. Boto gehien lortu zituztenak hurrengo proposamenak izan ziren: itsasertzeko pasealekuak hobetzea eta suspertze soziokulturalerako aparteko programa bat abian jartzea.

#### **Datuak**

Prozesuan zehar adierazi bezala, proiektu horiek egiteko aurrekontu-partida milioi bat eurokoa da, eta horrekin honako proiektu hauek jarriko dira abian.

<b>PROIEKTUA</b>	<b>PUNTUAZIOA</b>	<b>AURREKONTUA</b>
Parke bat estaltzea	1848	425.000€
Itsasertzeko pasealekuak hobetzea	1834	250.000€
Suspertze soziokulturalerako aparteko programa bat abian jartzea	1677	250.000€
Udalerriko bide publikoen inbentarioa egitea eta argitaratzea	1608	5.000€
Feminismoaren aldeko kontzientzia eta ekintzak sustatzea	1440	12.000€

Kanpoan geratu dira bozkatu zitezkeen beste hiru proposamenak:

- Parkea eta bidezidorrak hobetzea Gabriel Ramos Urangan (125.000€), 1396 punturekin.
- Fadurako trinketea margotzea eta egokitzea (20.000€), 1375 punturekin.
- WiFi sarea jartzea udalerriko hainbat puntutan (20.000€), 1314 punturekin.

Bigarren fase honetan, jasotako galdeketen kopurua 390ekoa izan zen; horietatik, 347 baliiodunak eta 43 baliogabeak (hainbat arrazoiengatik). Beste urteetan ez bezala, galdeketa gehienak (231) online aurkeztu ziren, web gunearen edo posta elektronikoen bitartez. 159 udal



# Getxo

*bizi ezazu*

eraikin ezberdinetan eta kaleko karpetan jarritako buzoietan jaso ziren.

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fase honetan, proposamenak jasotzeko hiru postontzi jarri ziren Algortako, Areetako eta Bidezabalgo geltokietan eta Andra Marin. Halaber, boto-ontziak egon ziren Areetako eta Algortako Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Gobela eta Fadura kiroldegietan, Romo Kultur Etxea-RKEEn, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) eta Algortako San Nikolas liburutegian. Halaber, parte hartzeko aukera eman zen udal webgunean erabilgarri zegoen inprimaki digitala betez, edota inprimakia helbide elektronikora bidaliz eskaneatutako eranskin gisa.

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.